



DISKOA

Katakonbatan gustura bizi dira



¡¡VIVEN!!
LOS NITXOS

AUTOEKOIZPENA, 2018

IKER BARANDIARAN

Musika bizitzeko modu asko dau-
de; nahi beste. Badira eskain-
tzen dietena soilik entzuten
konformatzen direnak. Badira bilatzen
aritzen direnak, eta horien artean are
eta beherago edo ezkutuago arakatzen
dutenak. Ildo horretatik oso garrantzi-
tsua da orain gutxi Nikki Hill musikari
eta abeslari afroamerikarrak esanda-
koa: “Musika bene-benetan maite badu-
zu, joan ahalik eta kontzertu gehieneta-
ra eta ahalegindu telonero diren talde
txikiagoak deskubritzen; eta egiten du-
tena interesgarria baderitzozu lagundu
egiezu, erosi beraien materiala eta hitz
egin talde horretaz zure lagunei”.

Eta hala deskubritu nuen neuk Los
Nitxos, milaka kontzertutan ikusle gisa
elkar ikusitako lau aurpegi osatutako

Gasteizko taldea. Birritan ikusi ditut
zuzenean eta hara non eta Gasteizko
Gaztetxean gauzatzen den Muinoko Ho-
tsak ekimen bereizgarrian zein hiri be-
reko Helldorado areto benetakoan, zein
baino zein musika pasio handiagoz bizi
duen jendartea.

Los Nitxos taldea 2009an jaio zen
hiri horretako katakonbatan. Beraien
esanetan garagea egitea zen helburua,
baina hori baino askoz gehiago aurki
daiteke beraien eskaintzan. Hain zuzen
ere, 2011n kaleratutako *Grandes de-
cesos*-ek Joy Divisionen zantzuak ditu,
esaterako. 2012an Bi Batean diskoe-
txeak kaleratutako *Gasteiz Dirt Capital*
bilduman parte hartu zuten eta gerora
teklatura gehituta *Dead at Jimmy Jazz*
zuzenekoa kaleratu zuten 2013an, punk

-rock ilunena agertuz. Horren ostean,
Politburo eta Bazookari esker *Carnalito*
muturreko post-punk lana.

Musika zale amorratuak dira Los
Nitxos taldeko kideak, jakin-min han-
dikoak eta halakoa da beraien emai-
tza, iluna, kiribildua eta ñabardura as-
kotarikoa: *Soviet*-ek Flying Nun-eko
taldeen distortsio garbi eta misterio-
tsua dauka eta tribaletik ere edanda
post-punk melodikoa da. *En primera*
fila giro espaziala, psikodelia, lo-fi-a
eta noise kiribildua. *Casper* zingiretako
rocka, no wave iluna eta elektronika
minimalista. *Hereder*o Paralisis Perma-
nente-ren ahaide ruidista. Eta, azke-
nik, *Sex&drugs&heavy rock* garaetik
abiatuta espazial eta rockeroa, diskoko
gitarreroena. ●